



INAUTERIETAKO TXIRIGOTAK

LOS PINTORES DE VITORIA

1-Euskal Herriko Hezkuntza negarrez dago aspaldian murrizketak jaun ta jabe eskola guztietan.

**Baliabideak murriztu ordezkorik ez dago aurrekontuetan diru gutxigo...
Kalitatea nola lortu baldintza txar hauetan?**

2-Hezkuntzako langileok haserre gaude aspaldian murrizketak jaun ta jabe gure lan baldintzetan.

**Gaixotu eginez gero ez dugu kobratuko ta soldata digute izoztuko...
Nola lan egingo dugu baldintza txar hauetan?**

3-Euskal Herriko umeak negarrez daude aspaldian murrizketa da nagusi beraien eskoletan.

**Liburuak, jantokia dena garestiago irakasle gero eta gutxiago...
Nola ikasi behar dute baldintza txar hauetan?**

4-Hezkuntza sailburu horiek entzun zazute gure kanta murrizketaren bidea da guztion porrota.

**Hezkuntza zaindu zazue irakasle, ikasleak begiratu Finlandiako eredu...
Hezkuntza da gure giltza gure etorkizuna. (bis)**

ESKOLARA JOAN NINTZEN (Ameriketara joan nintzan)

1-Eskolara joan nintzen ilusioz beteta handik etorri nintzen, maitia benetan etsita.

Murrizketak leku guztietan harexek ematen dit, maitia kriston amorrua.

2-RPT txikiak ordezkapenik ez ezin gara gaixotu, maitia haserretu zaitez.

Extra kendu, soldata izoztu pobreagoak gara, maitia ta ezin kejavu.

**3-Lehen denak berdinak
lan berdinarekin
baina sinatu zuten, maitia
bi sindikatukin.**

**Sexenioak ta zenbait pizgarri
orain gure artean, maitia
hainbat kategori.**

**4-Jubilatu nahi nuen
hirurogeirekin
baina esan zidaten, maitia
ezin duzu, pitxin.**

**Txin, txin, txin, txin, jubilatu ezin
batzuk "la prima"-rekin, maitia
ta besteok hutsik.**

TRISTE BIZI NAIZ ETA (LOMCEri ez!)

**1-Triste biziko gara
datorren LOMCE-kin
segregatzaile eta
zentralista guztiz
klasista, atzerakoia,
merkantilista txit
euskal sistema osoa
hankaz gora jarritz**

**2-Lege maltzurra da hau
Wert-ek asmatua
españolizatzeko
hezkuntza osoa
ondo doktrinatzeko
ezinbestekoa
klaustroetan apaizak
eta erlijioa**

**3-Ez dugu onartu behar
inposaketarik
nahiz eta lege izan
ta etorri Madrildik
autoritarismoa
eta sexismorik
gure ikastetxeetan
ez dute lekurik**

**4-Aditu Jaurilaritza
ez ari azpijoka
eskola publikoa
guztion erronka
denona ta denontzat
euskaldun ta laika
gureari eusteko
behar da borroka (bis)**

CARNAVAL, CARNAVAL...

*Eskola maitia
publika, geuria
euskaldun ta laikoa
denon berdintzailea
Eskola maitia...*



2013ko OTSAILAK 07

STEE-EILAS 